

**AGINDUA, HEZKUNTZA SAILBURUARENA,
SAILAREN 2022. URTEKO DIRULAGUNTZEN PLAN
ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA****ORDEN DEL CONSEJERO DE EDUCACIÓN, POR
LA QUE SE APRUEBA EL PLAN ESTRATÉGICO
DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO PARA
EL AÑO 2022**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da dirulaguntzen plan estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen dirulaguntzei dagokienez, dirulaguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, dirulaguntza horiek emateko beharrezko epea, aurreikusten diren kostuak, eta haien finantzaketa-iturria, eta beti aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoa betetzeko, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 2015eko irailaren 18ko 01/15 Zirkularrarekin bat etorritik, Hezkuntza Sailaren 2021erako dirulaguntzen plan estrategikoa onartu behar da. Plan hau sailaren politika planifikatzeko tresna da, eta bere helburua da erabilera publikoa edo gizarte-interesa duen jarduera bat sustatu edo xede publiko bat lortzeko bultzada ematea, dirulaguntzen bidez.

Dirulaguntzen plan estrategikoa argitaratuta, gure jardute-eremuan eraginkortasun-maila areagotzea lortzeaz gain, gardentasuna sendotzea ere lortzen dugu.

Horiek horrela, Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Onartzea Hezkuntza Sailaren 2022. urteko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eranskin gisa gehitzen dena.

Bigarrena.- Agintzea Sailaren euskadi.eus webgunean argitaratu ematea.

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones establece en su artículo 8.1 la obligatoriedad de contar con un Plan estratégico de subvenciones en el que se identifiquen, en relación con las subvenciones del Departamento, los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su concesión, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

A fin de cumplir con lo preceptuado en la Ley General de Subvenciones y, de acuerdo con la Circular Nº 01/15, de 18 de septiembre de 2015, de la Oficina de Control Económico, procede aprobar el Plan estratégico de subvenciones del Departamento de Educación para el año 2022. El presente Plan se configura como un instrumento de planificación de la política del departamento, por cuanto tiene por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o la promoción en la consecución de un fin público, mediante la concesión de subvenciones.

Con la publicación del Plan estratégico de subvenciones, se garantiza un incremento en los niveles de eficacia y eficiencia, así como el fortalecimiento de la transparencia en nuestro ámbito de actuación.

Así, en virtud de las competencias que me atribuye el Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento,

RESUELVO:

Primero.- Aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Educación para el año 2022, que se incorpora como anexo.

Segundo.- Ordenar que se dé publicidad mediante su inserción en la web euskadi.eus del Departamento.

Izp./Fdo. JOKIN BILDARRATZ SORRON
HEZKUNTZA SAILBURUA
CONSEJERO DE EDUCACIÓN

